

Urbana Aginaga Azkarate
Txulapain, Nafarroa (1890)

Aurkibidea

Biografia

Txulapaingo Usi herrikoa. Aita ere bertakoa zuen; ama, berriz, Itxasokoa (Basaburua).

Zintak

TXU-003

- **Proiektua:** Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1980-01-01
- **Iraupena:** 6 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Artola Kortajarena, Koldo

Pasarteak

1. Ehugintzaren inguruko azalpenak

- **Erref:** TXU-003/001
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehugintza, oihalgintza

Laburpena:

<p>Ehugintzaren inguruko azalpenak. "Euntzelia" (ehuntzailea) ba omen zen herrian. Haria nola "errokatzan" zen. Gero, lixiba egosi behar. Lan handia zuela eta harekin ezin zitekeela segitu dio.</p>

Transkripzioa

- Piri-piri-piri? y en otro palo hace el hilo, erroka, no gasta palo. Palo? ¡claro! en un palo se pone la estopa, para hilar... mullua; ta gero, pirri-pirri-pirri... ari itten da arreki, errokatu; areki itten da arie maineriak iteko. Gero, euntzeletan? an? ttin-tan, ttin-tan, tin-tan? así.

- Ehuntzeletan?

- Ni aitu naiz kanillek it(t)en... Je! gure errien bazen eguntzelia, eguntzelia erraten tzaikio orri; paatzaute katxarro batian ta, an trabatzen. Bi... bi kanille patzen dute, arieki, ta itaute: tan! tan! tan!... ortik ona, tan! tan! tan!... "una pa vino y otra pa pan" erraten diote bestëak. Je! nik kus tut trabian, zeatik eguntzelia bazen Utsin, oye tire eguntzeliak, an... maineriak paatzeko, maineriak, zuttibik itt-itten zutenak, ariak errokatu, pirripirri- pirri... zuk eztuzu kusi?

- Ez.

- Eje-je!... ni aitu naiz errokatzetan... an tzen pero, bana ikexi nuen, biño gero kendu zuten modernizati-, lan aundie zuen, gëren gizonak in biar zuten... ore erekitzen tzen garie bezala, alorrëan, yayotzen tzen; gero? atra biar tzuen, denak alde batera paratiaztuten; gero? zanpatu, kendu azie; gero? soroan iduki barratui tennak alde batera; gero, andik karri? te labian sartu, labia berotute... ta an bero-beroa zegolai? atra, ta gero garbak erraten tzioten... zureskoak, ola eskutokieki, an sartue? ta, tan! tan! tan!... tran! tran! tran!... kentzen tzioten zaborr ore dena! ta gelditzen tzen garbi-garbie, ta gero lixuen egosi? autseki tte gio egosi lixuen? t'ek e, paatzen tzen zuri, maineriak iteko, biño lana aundie zuen! ta utzi zuten ure. Orai eztakit nol iten tuten, emen eztitute in, tierra oketan ezta, beño lenao? erri guzietan baze. Biño etzen posible segitzea, e? lan aundie tzuen; oraingo neskatzek aitu... lan artan, atzoko otrabez?... je! lan aundi zuen andik andia're. Ni kanillek iten aitu naiz, euntzelia baze errian, euntzelia erraten tzioten ari, ta... yostaketan an, aurrek eta, ya an ta, kanillek eta sartu... burnitto at eukitzen tzuena, an sartu ta tt-reeee... t'andi, olaxe tubo atzuk, ta... aiek, euntzeliak itten zittü, orti pota! andik onata; ta, tran! tran! tran! Ta "Ze in tzu?" ta, bestiak, etzakitenak, kusten tzuten. "Mira" -Bartolo zaikion, euntzeliai- ta "Mira, ya está ése: una pa vino, otra pa pan, una pa vino y otra pa pan", erraten tzioten... irris!... euntzeliari; je-je! orai ezta alakoi itten, orai? (...) non itten ttuten, beste giseko makinek, orai etzen posible segitzëa, lan aundie zuen! aundie... lan ona zuen arrek! hola!.

2. "Bonbolonian" eta beste haur-kanta batzuk

- **Erref:** TXU-003/002
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:03:28. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

<p>"Bonbolonian", "Bat, bide, hiru, lau", "Bolon bat eta bolon bi" eta "Talo-txin, talo-txin" haur-kantak.</p>

Transkripzioa

1)

Bonbolonian bonbolon zaide
Otsua ttan du gure artzaie
Otsokumiak axuri zaide
Adios gure artzaie
Otsokumiak axuri zäide
Adios gure artzaie.

2)

Bat, bide, iru, lau
Arakiñek amalau
Auntzek ala erbi
Eldu naizela ni
Lau, lau, lau
Ardoa kaldu nau
Bien, bien, bien
En Pamplona también.

3)

Bolon bat eta bolon bi
Bolon putzure erori
Bolon pat eta bolon bi
Bolon putzure erori
Erori bazen erori
Ezta yagokoik ägeri
Erori bazen erori
Ezta yagokoik ägeri

4)

Talo-txin, talo-txin
Ator itxera Matxin
Talo-txin, talo-txin
Opill aundi betekin.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com